



DE PABLO Santiago, MEES Ludger, RODRIGUEZ RANZ José Antonio, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. Vol. I: 1895-1936*. Barcelona, Crítica, 1999, 398 páginas.

SAIZARBITORIA Ramón, *Aberriaren alde (eta kontra)*. Irún, Alberdania, Zerberri, 1999. 85 orr.

AULESTIA Kepa, *Gutun amaigabea*. Irún, Alberdania, Zerberri, 2000, 78 orr.



Hiru liburu hauetan, hiru literatura eta narrazio moeta, euskal abertzaletasunaren harian, bereizteko aukera dugu: zientzi girokoa, historia eta gizarte zientzietatik abiatuz, literatur jardunekoaren gunekoa bigarrrena, historiak kontatzeko egina du luma eta oraingoan bere eguneroko bizimoduko barrengo barretik abiatuz eta azkena, politikagintzakoa puri purian, barne esperientzia pertsonala agirikoa uzten duela, belauldi desberdin biren metafora gisa pentsatua.

Eusko ikaskuntzen baitan, azken bi hamarkadetan, abertzaletasunak oro har eta bereziki euskal abertzaletasunaren sorrera eta bilakaerak hainbat liburu eta saioren gai bizia bihurtu da. Zergatia ulergarria da, hein batean, XX. mendea euskal abertzaletasun berriztuaren mendea izan delako zalantzarik gabe. Iraganeko kultura politiko foralaren ikurpean zegoena, XX. mendean euskal abertzaletasunaren formulazioa hartu du. Eta baieztape honek, gaiaren muinaren sartzen gaitu. Abertzaletasunaz zer ulertzen den, eta bereziki Euskal Herrikoaz, ez da izaten erreza eta autoreak sarritan jakintzat jotzen dutenez, aurretik argitu beharreko kontua da. Aipaturiko liburuetan ere horixe gertatzen da.



Era hertsian egin ezkerero, Sabino Aranak sortu zuen doktrina eta alderdiaren bilakaera hartu ohi da sarritan euskal abertzaletasun bakarraren sorburu eta abiapuntu. Aipagai dugun lehen liburuan hori dakusagu. Baina nire ustez zehaztu beharko litzateke. Euskal abertzaletasunaren zati bat edo joeratariko bat dugu jeltkideena eta Euzko Alderdi Jeltzalearen historia, euskal abertzaletasunaren historia soila bihurtzea, ez da gututz zuzena. Egia da, abertza-

le izena bera Sabino Aranak formulatu eta definitu zuela, baina azaleko jakulatoriotara mugatu gabe, eduki sakonari begira ezkerero, euskal abertzaletasunaren muina edo definizioaren giltzarria, luzeagoa dugu, burujabetza politikoaren praktika, komunitate politiko errepresentatiboetan isladaturik, Batzar Nagusietan, espainiar konstituzionalismo liberalaren garaian, zein bonbondarren zentralismo administratibon argi eta garbi agiri da.

EAJren historia aztertzen duen liburuan, penduluaren metafora erabiltzen du, Espainiarekiko autonomia eta independentziak markatzen duelakoan euskal abertzaletasunaren bilakaera edo ibilbidea. Eta ikuspegi murriztatzaile hau ere, eztabaidagarria da, dikotomia hori, neurri batean, artifiziozkoa delako.

Mendearen ikusmira luzezabalean murgilduz, baieza daiteke, 1917an, jeltkideak, hau da Jaungoikoa eta Lagi Zaharraren baitako abertzaletasunak, Bizkaiko Diputazioko hauteskundeak irabazi ondoren, Foru historikoen berreskurapenaren eskakizuna alde batera utzi gabe, autonomi estatutuaren lorpena helburutzat ezarri zutela, Foruen berrezkurapen politikoaren bide operazional gisa. Euskal autonomi estatutu organikoa idatzi zuten 1918an. Helburu hau, XX. mende amaierako bi hamarkadetan lorturik dakusagu eta indarrean ezarri da. Abertzaletasun moeta horren arrakasta erabatekoa dugu, garai hartan bere aurka antolatu zen Liga de Acción Monárquica eta Bizkaiko PSOEren arteko aliantzak, mende bukaeran, sikeran, autonomia edo autogobernu moetaen bat onartzera iritsi baitira espainiar helburuko alderdi biak.

EAJko historia argitaratzen duena Bartzelonako editoriala da, eta gaztelania erabiltzen du, EAJren baitan 100 urtetik gorako historian usadiozko edo gehien erabili ohi den hizkuntza.

Liburuaren autoreak, (Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak lehen biak eta hirugarrena Deustuko Unibertsitatean) honezkero, ikertzaile trebatuak ditugu XX. mendeko historian eta liburu hau idatzi aurretik gaiaren inguruan monografia sakonak argitaratu dituzte. Beraz, aztergaiaren ezagutza zuzena eta sendoa erakutsia izan dute, liburu hau idazteko unean. Horrez gainera, L. Meesek eta J. A. Rodriguezek euskarazko produkzioa ezagutzen dute eta J.A. Rodriguezek liburu bat du euskaraz argitaratua euskararen egoera juridikoaz bigarren Errepublikaren garaian. Beraz ez da gutxi, euskal abertzaletasunaren ikerketetan euskal kulturaren trebaturik ez daudenak sarri-tan ikusten baititugu.

Beraz, ikerketa liburu baten aurrean gaude, bere baieztapenak sorburuetan oinarritzen dituztelako eta kontrastatu daitezke bere hipotesiak, datu enpirikoen ondoan, autore bakoitzaren subjektibitatearen eremu intransferible hori nolabait beste esparru batera igaroz. Hala ere, esan behar da ez dagoela narratzaile neutrorik edo inozentetik. Edozein ikerketak bere imaginarioa erantsirik darama. Sorburu berriak, EAJ alderdiko barne agiriak, lehendabizikoz ikusteko aukera izan dituzte. Honek jakina denez, liburuaren zenbait ataletan, lehen hamarkadetakoa bereziki, datu berriak azaltzeko aukera eman die.

Sarreran J.L. de la Granjak jeltzaleen historiografia laburra erakusten du eta kokatu ere bai, euskal historiografiaren baitan, profesionala eta zientifikoa 1970 urte geroztikoa soilik balitz bezala, salbu J. Caro Barojaren adibidea. Baina Julio Caro Barojak maisuak izan zituen euskal historiografian, B. Etxegarai adibidez eta bere lanean Th. Lefebvreren, Euskal Herriko Historiaz monografia nagusia 1933an argitaratu zuena Parisen, eragina ere nabarmena da. Karmelo Etxegarai jadanik euskal historiaren profesionala zen XX mende hasieran eta ezin daiteke ukatu zientzi kriterioak erabiltzen ikasi eta erabiltzen zituela. Euskal historiografiak beraz, soka luzeko kondaira du Oihenarten ikuspegi kritiko eta XVII mendeko libertinoen jokamoldeak bereak egin zituenetik, M. Goihenetek erakusti duen bezalaxe. Zeren P. Burkek adierazi duenez, argi eta garbi, gaurko zientzi historikoa XVII mendean eztabaidatu ziren gaien inguruan, portaera, aukera eta praktika berberetsuetan murgildurik dago.

Ondoko kapituluan, liburuaren autoreak Espainia eta Frantziako Estatu-nazio proiektuaren iraultza liberalaren garaian gorpuztu zeneko bereizgarriak adierazten dute, beharbada Espainiaren kasuan bere Inperio izaeraren ondamendia gehiago sakondu behar zukeen. Ondoren Sabino Aranaren biografia egiten da baina historia eta Foruei buruzko ikuspegi laburtua egiten dutenean ez dut uste guztiz zehatz eta zuzen egiten dutela, historialari legegizon eta fikziozko literatur lanen autoreen ekarpenak nahasten baitituzte, bereizkuntzarik ez balego bezala. Adibidez Francisco Aranguren Sobrado edo Pedro Novia de Salcedo edo Arturo Campionen lege arloko historiazko liburuak edukiak ezin dira nahastu Navarro Villoslada edo Araquistainen nobela eta leiendekin. Autore guztiak, gaurkoak barne, imaginario jakinetik abiatzen gara, baina P. Novia de Salcedok jadanik, politiko eta agintari nagusienetariko izan zena Bizkaian eta ez alboko literatur egilea soilik, ohizko ikuspegi teokratikotik eta tradizionalistotik abiatuz ondoko konklusiora iristen zen 1829an idatzi zuen liburuan: “... Sea cual fuere la potestad o forma con que legítimamente fueron constituidos, el estado se formó y todos sus individuos tienen un derecho real y positivo a su observancia y conservación... Cual esta sea en las Provincias Bascongadas lo hemos demostrado ya, así como también su carácter de estados separados e independientes, y con esto sólo está plenamente probado el derecho que asiste a todos los pueblos para la observancia de sus fueros y leyes” (NOVIA DE SALCEDO, P: *Defensa histórica legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipúzcoa contra las Noticias históricas de las mismas que publicó d. Juan Antonio Llorente y el informe de la Junta de reformas de abusos de la real hacienda en las tres Provincias Bascongadas*. Bilbao, 1851, T. IV, p. 8.).

Nafarroan ere aintzat hartzekoa Angel Sagaseta de Illurdozena, Nafarroako Cortes delakoaren sindikoa. Revista Euskarak berriz argitaratu zuen, ohizko Nafarroaren Foruen bermoldaketa konstituzionala proiektua, Nafarroaren botere politikoa erabat gordetzeko eta bermatzeko.

Burujabetza jadanik Larramendi 1757 urte inguruan idatzi zuenean “¿Qué razón hay para que la nación vascongada (...) nación privilegiada y del mas noble origen no sea nación aparte, nación de por sí, nación exenta e independiente de las demás? jadanik abiatuak dago eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak Getariaren praktikatu egin zuten. 1821tik aurrera, Bilbon aukera bezala agiri da Espainiatik aldentzea eta Bilboko egunkarietan menderdian agertzen zen antikastellanismoa 1880tik gora, Aristides Artiñanok idatzi zuen bezala 1885an, antiespañolismo eta independentismoaren giroan eraldatu zen. Baina aintzat hartzekoa dugu Juan Tellitu, Bizkaiko Diputatu nagusia izan zena, beraz agintaria eta politikaria, 1877ko martxoaren 23an idatzi zuena, Bizkaiko Foru Diputazioa eztabaidan zegoenean 1876ko uztailaren 21ko legearen ondoren: “El país aforado, era libre e independiente(...) Es pues llegado el caso, de que el país aforado, solicite legalmente la reparación de los desafueros inferidos, o se le reconozca el incuestionable derecho de formar entre el Pirineo y el Ebro, un Estado independiente, a la manera de una pequeña Suiza que siendo declarado neutral, sirva al mismo tiempo de una verdadera salvaguardia para España, evitando por esta parte una invasión extranjera...”. Badirudi, XIX. mendean zehar, delako ideiak indarrean izan zirela abagadune guztietan, agintari batzuen artean, eta azpiko ahoz ahoko kultura politikoan ere bai. Arabako Ortiz de Zarateren lanetan 1869an ere agiri dira. Ez dira leiendak bakarrik, politika gizonen proiektuak, ekintzak eta aukerak.

Beraz, euskal abertzaletasunaren sorrerari buruz aritzerakoan, ez dut uste Sabino Aranaren doktrinara mugatu behar denik. Berak ez zuen asmatu euskal abertzaletasun politikoaren nahia eta borondatea. Burutu zuena bai izan zen, erakunde bat jeltkideen doktrina indartzeko eta zabaltzeko. Berak sistema integral eta doktrinarioa

asmatu egin zuen eta arrakasta izan du. Baina Katalunian bereizten den gisara 1880ko lehen abertzaletasun errepublikanoa eta liberala, (Almirallen Centre Catalá, Euskal Herrian ibilia) Euskal Herrian ere egin beharrekoa da. Euskaroen praktika politiko Angel Garcia Sanz-Marcoteguik ikertu duena erabat sartu beharra dugu eta Jose Luis Nievaren *La idea euskara de Navarra (1864-1902)*, zalantza barik onartzeko beste euskal abertzaletasun politikoen ekimenak eta aukerak. Sabino Aranak Diputazio probintzian burutu zituen iniziatiba politikoak ere aipatu beharrekoak dira. Beraz liburuan agiri den S. Aranaren doktrinaren kontextua, aberastu daiteke, garaiko agintarien ideologia eta asmoak aztertuz eta orduan, EAJ alderdi gisara antolatzearen ondorioz, ondoko urteetan lortu zuen gizarte arrakasta hobeto ulertuko da.

Hirugarren kapitulutik bostgarrenera, 1936arteko ibilbidea erakusten du zehatz mehatz, alderdi erakunde gisara hartuaz. Nire ustez, gizarte arloan eta bereziki kulturaren esparruan izandako berbizkondeaz nola aberastu zen alderdia erakunde gisa ez da behar den beste azpimarratzen. Adibidez, Jesus Sarria kubatarraren euskal abertzaletasun kulturala eta politikoak merezi du azpimarratze sakonagoa, Bilbon euskal abertzaletasunak sistema kultural berriztua, hiriko modernismora lotua sortzeko gaietasuna erakutsi baitzuen.

Aranaren ikuspegi ukronikoan erortzen dira 286ko orrian, 1934-36ko jokabideak, Aranak onartu ezinekoak zirelakoan, ikuspegi jagi-jagistaren ildotik, ondoren eranste-ko vision de Estado gabeko partidua zela esateko

Dena dela, orohar, irakur erreza eta liburu erabat interesgarria dugula ez dut zalantzarik. Baina ondoko gogoeta orokorrak gehitu nahi ditut, liburuaren harian.

Izenburuak adierazi nahi du, euskal abertzaletasuna baterik bestera dabilela, autonomia eta independentziaren artean, modu mekanikoan, bere betirako patua hori delakoan halabeharrezko gelditu ezineko mugimenduan. Baina, zergatietan murgilduz, pendualen metafora erabiliz berehalako galdera litzateke, nun ote dago penduluaren erakar indarra alde batetik, lurraren lurraldetasunean soilik ote? Eta bestetik zein da ardatz horizontala, penduluaren mugimendua beharrezko egiten duena, zintzilik baitugu pendulua, euskal gizartearen barne gihartzean ote, soilik? Zein da euskal abertzaletasunaren azpiko substratu minimoa, nola definitu, euskal gizartearen barne egituratze eta gihartzea? Zer da lehenago herria/aberria edo demokrazia? Galdera hauek XX mendearen lehen erdialdean euskal abertzaletasunean eta Europako beste herrialdetakotan oinarri oinarritzkoa izan dira eta tirabira ugari sortu ditu. Gurean Jon Mirandek gordinki 1950ko hamarkadan erakutsi zituen. Beraz, pendulua mugitzeko erakar indarra eta ardatz horizontala galdera horietan dugu eta ez penduluaren mugimentuaren muturretan, delako dikotomia imaginario faltsuan oinarria duelakoan.

Euskal abertzaletasun moeta desberdinak egon daude gaur egunean baina izan dira baita beste garai batean eta 1931an Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad, hau da Eusko Ikaskuntzaren baitan bildu zirenak euskal abertzaletasunaren adierazbidetzat hartu behar ditugu. Jelkideen bereizkuntza izan da berea dela euskal abertzaletasun posible bakarra baina nire ustez, euskal autogobernuaren alde, esparru guztietan, materialean eta sinbolikoan alde dauden guztiak lerratzen dira euskal abertzaletasunean. Arturo Campion, Nafarroako euskaroak, beste euskal abertzaleak dira edo integristak ere edo errepublikano federalak besteak beste, euskal abertzaletasunaren isla ditugu, nortasun politikoa Euskal Herrian errotu nahi zuten eta. Espainian, euskal Estatu, izaera asoziatua eta burujabea, duen autogobernu politikoa defendatzen zuten. Azken batean, XX. mendeko abertzaletasuna, forma eta modu berritan aspaldiko ildo edo nahiaren oinordekoa baino ez da Arturo Campionek adierazi zuen bezala.

Ohizko fuerismo politikoa doktrinarekin bat egitera doa, eta XIX. menderdiko fuerista liberalen praktika politikoa eta XX. mendeko euskal abertzaleena berdintsua da. Casimiro Ariz, Ortiz de Zarate, Nicasio Zabalza edo F. Sagarminaga irakurri besterik eta nolako praktika politikoa egin zuten arakatzeari ez dago. Euskal Estatuak sortzeko grina zuten, Estatu nazionalen garaian, horretarako Espainiako Koroarekin zertan puxkatu behar zela, pentsatu gabe. Mende bukaeran etorri zen, etenaren premia, 1877koa gertatu ondoren. Guztien artean, Ortiz de Zarate arabarraren ildo da nabarmenena. Euskal abertzaletasun politikoa, jeltkideen asmakizun soila ez da eta Euzko Alderdi Jeltzalearen horretan iraun arren. Baina arlo honetan, liburu honek betiko tesi klasikoak indartzera datorrigu. Nire ustez, jeltkideena, joera bat baino ez da, ondoen antolatua eta erakundetze horrek eman zion zentralitatea eta indarra, imaginario berria landuz Baina ez bakarra. Euskal abertzaletasuna, anitza da. Berez XIX mendean zehar politikoki gorpuzten joan zen. Aipatu aipatzen da, sustratua, baina XX mendean, sustratu hori, modu ezberdinez adierazita, jarraitu zuen, Euskal Diputazioen arteko bilkura iraunkorrak adierazi zuten gisara. Eta autonomia ekonomiko administratiboa politikoa bihurtzean, jeltkide eta liberalen batzuen asmakizun zuzenak, bestelako kultura estatutarioa sortu zuen. Abertzaletasuna ezin daiteke definitu edo neurtu modu negatiboan, hau da, antiespaiñolismoaren arabera. Hobe definitzen da autogobernuaren lorpenaren arabera eta jakina autogobernuak mugak baditu eta mugatzaileak ere bai.

Euskal abertzaletasun Jeltkideen arazoa berezia eta propioa izan zen, totalitarismo integrista eta demokraziaren printzipio politikoa arteko tirabira eta bilakaeran non kokatu, Europar barrena totalitarismo integrista nagusi zen garaian. Karlismen teokraziatik hurbil, errepublikaren lehen urteetan erakutsi zuen bezala, baina bestalde euskal botere politikoa egarri.

Jeltzaleak, iritzi publiko eta politikoa artikulatzea lortzen dute, triangulu politikoa anguluan aukera sendoa sortuz eta sistema nazional propioa, nazio berezia antolatuz, alderdia bizkarhezurra delarik. Mugimendu soziala bihurtu zen.

Definizio etnikoa eta politikoren arteko desberdintasunak ez ditu liburuak bereizten behar haina eta ez du definitzen zer ulertzen edo nola operazionalitzen duen abertzaletasun etnikoaz adierazi nahi duena. Zeren liburuan behin eta sarriago agiri da, euskal abertzaletasunak, bereziki, jeltkideenak, bereizkuntza eta eksklusibitatea sartu zuela euskal gizartean, baina alderantzizko galdera planteatu gabe, sieran ere: XIX. mendean zehar foru autogobernu politikoa inguruan sorturiko euskal gizarte politikoa gihartzea, zenbateraino Canovas del Castilloren nazionalismo espainiar kasteilaniaren bereizgarriak eta eksklusiboak, ez ote izan zuen apurtutzailearen rola? Azken batean, erdatz politikoa daude euskal gizarte antolatzearen eta XXI. mendean sendotu eta definitu beharrean gaude.

Eta aipagai ditugun beste bi liburuxkak, ildo honetan, iragan hurbileko esperientziatik abiatuz, etorkizunari begira idatzikoak ditugu.

Biak memoria pertsonalak dira, norberaren esperientziatik abiatuz, ingurua aztertzen dute, bere euskal gizarte garaian garaiko testigu nahi dute izan.

Saizarbitoria ekintzaile kultural indartsua, Lur editorialeko zutabea eta Durangoko azokan 1960ko hamarkadaren bukaeran ausardiz beteriko itzal handikotzat agiri zen, bere egia, segurua eta nagusia zela, halaber, Aresti handiari aurre egiteko gauza zena eta kaleko dialektika kulturean ondo trebatua. Bere lehen nobela irakurriz, berak oparitu zidana Durangon hain zuzen ere, alfabetatu nintzen euskaraz eta Lur editoriala ikur garrantzitsua izan zen, niretzat behintzat. Aulestiaren ekintzaile jarioa aldiz, politiko-

millarra izan zen eta herriaren insurrekzio armatuaren berehalako izango zela predikadoretariko bat genuen. Delako sinismen aluzinazioak arbuaitzen denbora emana naiz, gehiegitxo agian. Kontatzen dutena, hurbileko sentitzen dut. Horrela bada, liburu batean belaunaldien arteko kultura inmaterialen transmisioa eta barneraketa, gertakizunen ondotik, aitona eta ilobaren arteko zubigintza azalduz. (Aulestia). Bestean, belaunaldi baten 30 urteko bilakaeraren esperientzia. (Saizarbitoria).

Ez da posible historia lantzea, zientzi gisa, barrualdeko kultura aztertu gabe, eta areago oraindik, euskara jakin gabe, nekez ulertuko da euskal gizartearen bilakaera, ageriko historia eta ezkutuko epe luzeko egitura sendoak. Unamunok intrahistoria kontzeptua erabili zuen, eta euskal historiako lanak aztertu zituen, Karmelo Etxegaray eta Labayurenak bereziki, lehenarena gorai patuz eta bigarrena arbuaituz, 1896an. Bere ustez, benetako historia, egunerokotasunean oinarritzen da, pertsonak bizi duten azpiegitura, eta sare iraunkor eta ikurrez ornituriko traman. Ikuspegi aurretatua zuen M. Unamunok historiografiaz eta berak historia hori adierazteko nobela erabili zuen, historiako liburuen irakurle izanik eta saiakera egile ere. Baina nobelak pertsonaien alde ezkutuera bidaiatzeko gaitasuna ematen du. Beste horrenbeste gogoratu beharrekoa da mende hasieran honetan, zientzi arloan, giza izpirituen bilakaeran ez baitago mugaketarik egiterik.

Liburu biak irakur errezak dira, ondo idatziak eta bat batean irakurtzekoak. Baina edukiak dira guretzat oraingoan erakargarriak.

“Gure nazionalismoak okerrera egin du, kultura menderatu baten defentsatik, ezaugarri etnizistak erakusteraino” Horra Saizarbitoriaren azken konklusioa. Ipar amerikarren ezaugarri etnizistak, agian, Macdonalds janaria eta fraka bakeroak ez dira okerrak zabalak lortu dutelako. Zabalkunderik lortzerik ez duten ezaugarri etnizistak, horiek dira harriskugarriak, beraz txikia eta mugatua izatea da harrizkugarria etorkizuneko munduan eta ez besterik. Etnizismoaren inguruan sortu den metafisika, benetan oinarri gabekoa da eta une honetan hitz magiko gisa erabiltzen da. Mitomaniak egiten dituen kontsiderazioak, jakingarriak dira eta filosofo helduaren zihurtasunez idatziak daude. Horrela 32-35 orrialdetan esandakoa, goian aipaturikoaz ez dakit nola uztartzen duen: “ez ditudala agoantatzen gure mundu mitikoaren sutrai faltaz eta originaltasun ezaz eten gabe zirikatuz ibiltzen direnak”. Liburuaren zehar, hainbat aforismo aurkitzen dira eta euskal gizartea ulertzeko, liburu guztiz garrantzitsua dela deritzot. Badirudi, autorea euskal abertzaletasun epel batetik abiatuz, urtearen poderioz eta arrazoitzearen sakontzeaz, ez duela lotsarik euskal bazilo nazionalistaren eragina onartzeko, baina dena delako bazilo horretatik libre inor ez dagoela adierazteko modu aipatua, lortzen du.

Aulestiaren liburuaren tonuan berriz, bestelako ibilbidearen adibidea dugu, gazteagoa delako agian: Jatorrizko euskal abertzaletasun gogorretik gaur eguneko euskal abertzaletasun ezaren edo delakoaren auzolotsa erakusteraino iritsi dela, erakutsi nahi du. Eta hori adierazteko ez du pudorrik, hau da, auzolotsarik. Bere aititaren memoria traizionatzen ote dagoen beldur da eta zorra kitatzeko euskaraz, ederki idatzi ere idatzi du, saiakera jakingarria. Tamalez, lotsa gehiegi du euskaraz idatzeko, bere jainko mediatikoak agirika egingo ote diote? Beharbada publikorik ez duelako aurkitzen, bere aitita ezik eta horregatik euskaraz liburuxka hau. Betirako onartzen du konformismo funtzionalista jatorraren ildoan, euskara familikoen arteko hizkuntza bizia izan behar duela eta beraz diglosia halabeharrez jainko berrien agindua, onartzea baino ez dugu mortalok.

Bere saiakeran ongi agiri da euskal abertzaletasun Jelkideetik, gaur egungo euskal abertzaletasunera dagoen jauzia, kultura politikoa mailan. Azterketa konparatibo hone-

tan datza liburuaren balio nagusi bat. Bere saiakeran, baieztapen nagusi batzuk garrantzitsuak direla, dakusat. Adibidez, esaten duenean “zenbat eta gehiago nahi Euskal Herriko lurraldeen batasuna, hainbat eta motzago geratuko da autogobernuaren asmoa”. Gizartearen eraketan datza euskal abertzaletasunaren muina eta ez lurraldeak emandako mugaketetan. Baina oker dago soberania ez dela izan helburu. (“abertzaletasunak sekula izan ez duen subiranotasunaren aldeko grina” 65 orr.). Jesus Sarria, Hermes aldizkariako sortzailea, kubatarra zen eta euskal abertzaletasuna eraberritzeko, Sotaren laguntzaz, 1918an *Ideologia del nacionalismo vasco* idatzi zuen eta bere baieztapena zen: “Euzkadi, reivindicando su nacionalidad y su soberanía no es obstáculo a la grandeza de España”. Zergatik Espainiarrak ez dute nahi sinistu hau? Kubatar hau, Kuba Espainia zenean jaio zen eta Kizkitzaren, Jelkideen doktrinaren arduradunaren aurkakoa zen, baina herri baten soberania politikoa zertan zetzan, argi eta garbi irudikatu zuen. Nire ustez, burujabetzaren aldeko tradizioa, kultura politikoa foralean oinarritzen da. Eta laster batean, gonbidatuko dut Aulestia jauna Autonomia Estatutuaren lehen gehiagarriaren edukia ikas dezan, Unibertsitatean sortu berri dugun Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutura, (“sekula ez dut ulertu izan Autonomia Estatutuaren gehigarri bakarrak dioena”). Herbsteko adibide konparatiboa ezarri, Eskoziak “devolution” kontzeptua erabiltzen ari da eta ingelesten onespenez, berriz ere bere autogobernu politikoaren jabe izateko. Gure deboluzioa, foruen sistema praktika politikoa zena, adierazten du eta goian aipatu dut noiz nola eta zergatik 1918an sortu zen Estatuto kontzeptua. Gaur egunean, Euskal Herriko herrialdeen erakundetze politikoa, Estatuto berezi baten baino berme handiagoa behar dute eta hori euskal Estatu baten bidez lortzen da, modu asoziatuan Espainaren eta Europaren barnean garantizaturik alde bietatik eta ez batetik bakarrik. Eta honelako formula lortzeko, Estatu federal espainiarra behar dela begibistakoa dugu. Asmoz eta Jakitez Aulestiarren armarría, euskal modernitatearen ikur nagusia da, bizitza asmoz eta jakitez landu behar delako.

Bestalde, euskal gizartearen aniztasunaz mintzatzerakoan, aniztasuna ezin daiteke izan identitate faktore gihartzailea gizartean, onartu behar dugun bizimodurako printzipioa baita, arnasa hartzea ezin daiteke bezalaxe. Beti daude politikoki ikur argi batzuk eta oinarritzko sustrai batzuk. Eta hauek euskal bereizkuntzakoak izan ala ez izan, horretan datza euskal abertzaletasunaren izatea eta garapena. Euskal gizarte tradizionala ere anitza zen, ez baita gizarte bera beterrikoa eta goiherrikkoa, artzantzakoa eta mariñelen imaginarioa. Bukatzeko, euskal abertzaletasunaren legitimitatea ez zen irabazi bakarrik, gerra baten ondorioz, euskal abertzaleak euskal karlisten aurka egin zuten eta galdu zuten gerraren ondorioz. Hiritarren artean, onspena izan zuelako, lortu zuen errepublikaren garaian euskal abertzaletasunak. Euskal tradizionalista biolentoak hala ere, amiltegian sartu zuten Euskal Herria, jakituri gabeko asmoa erabili zutelako, gaur egunean egiten ari diren bezalaxe.

Laburtuz, hiru liburu garrantzitsu eta irakurri beharrekoak direla uste dut, gure saiakeren panorama modu zehatz, interesgarri, errez lantzen dutelako. Euskaraz idaztea, euskara da eta ez besterik, tamalez gure gizarteko askorentzat, Koldo Izagirre adierazi zuen legez. Baina liburu hauetan, gogoeta eta eduki garrantzitsuak daude.

*Joseba Agirreazkuenaga*